

2012KO ABENDUAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2012ko abenduaren 27an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- GORKA RENTERIA GARAI
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2012KO ZEMENDIAREN 22AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2012ko zemendiaren 22ko aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2012KO ZEMENDIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2012ko zemendiaren 29ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- 2012KO ABENDUAREN 7AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2012ko abenduaren 7ko apartekoa udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

245/2012.- Egoitz Abio Arrillaga jaunari Txakolingunea erabiltzeko baimena emotea, abenduaren 1ean WORLD-KAFE bat egiteko.

246/2012.- Koldo Legarreta Obieta jaunari arriskutsuak izan daitekezan animaliak eukiteko 48012/12/0013 zenbakiko lizentzia administratiboa emotea bost urterako.

247/2012.- Telefono finko, mugikor eta Internet zerbitzuei buruzko espedientearen kontratazino barruan, Felix Jauregizar Oraindi, Bakioko Udaleko zinegotzia, kontratazino mahaikide izendatzea, Verdes Luke Cearra zinegotziaren orde.

248/2012.- 2 eta 3. esparru publikoak erabilteko lizentzia emotea, izozkiak eta gozoki industrialak saltzeko kiosko desmuntagarriak instalatua izan daitezana.

249/2012.- Udalaren plangintza energetikoa egitea eta plangintza hori onestea.

250/2012.- Kredituak aldarazoteko espedienteari hasikerea emotea, kredituen gaikuntzaren bitartez.

251/2012.- Kontratazino espedientea onestea publizidade bako prozedura negoziatu bitartez, esleipen erizpide jakin batzuen arabera, BAKIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ERRENTERIAKO SR-3 EGOITZAZKO LURZORU URBANIZAGARRIAREN plan partzialaren aldarazpena idazteko lanak kontratatzeko asmoz.

252/2012.- Bakioko Udala 252/2012-B errekurtsio horretara bertaratzea eta udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko zeregina letratu eta prokuradoreen esku ixtea.

253/2012.- Arau subsidiarioetako C-2 jardununeko urbanizazio publikoaren eta Butro-Etxe baserriko urbanizazio pribatuaren proiektua behin betiko onestea.

254/2012.- “Vega” deritxon eraikinaren beheko solairuko lokalaren kontratua 2012ko abenduaren 31n amaitutzat emotea.

255/2012.- “Bakio Surf Taldea” alkarteak eta Bakioko Udalak sinatutako azpierrentamendu kontratua 2012ko abenduaren 31n amaitutzat emotea.

256/2012.- Abel Agirre Urlezaga jaunari, Urkitza Ikastetxeko irakasleari, baimena emotea zenbait instalazino publiko erabilteko.

257/2012.- Amets Jauregizar Baraiazarra andreari Kultur Etxeko gelak erabilteko baimena emotea, abenduaren 15ean bilerak egiteko.

258/2012.- Alaitz Llaguno Barayazarra andreari baimena emotea, “Urkitza” ikastetxeko ikasleen guraso alkartearen izenean, 2012ko abenduaren 3an Olentzeroren jaia ospatzeko.

259/2012.- 2013ko bagileko aparteko ordainsariari jagokozan nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbidetzeko prozedura onartzea.

260/2012.- Aitor Alzaga Renteria jaunari, ATXURRE FUTBOL SALA TALDEAREN izenean, V. Bakio Bost & Bost Areto-Futbol Txapelketa egiteko udal baimena emotea.

261/2012.- 5.000.000 euroko epe luzerako zorpetze eragiketa honako erakundeakaz hitzartzea: Kutxabank (%50), Caixabank (%25), BBVA (%12,5) eta Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxa (%12,5).

262/2012.- Telefonía zerbitzua Euskaltel enpresari esleitzea.

263/2012.- Isabel Barturen andreari Goikolea baserriko zalditegia behearen ganera bota, birkokatu eta berregiteko udal lizentzia emotea.

264/2012.- Gorka Lopategi jaunari sarrera-bidea zagorraz egiteko lizentzia emotea, Bakioko 5. poligonoko 116 eta 118. lursailetan (Goitiena etxearen inguruan).

265/2012.- VASCO FRIGO, S.L., enpresari Igo esparru publikoa erabilteko lizentzia emotea, izozkiak eta gozoki industrialak saltzeko kiosko desmuntagarriak instalatua izan daitezana.

266/2012.- PURI RAMOS andreari udal lizentzia emotea Basigoko bide nagusia 126. zenbakian dagoan etxebizitzako (Etxeguren) balkoi-tako heldulekuak aldatzeko.

267/2012.- CONCEPCION LANDALUCE andreari, BIRJILANDAKO BIDEKO 5. ZENBAKIKO JAUBEEN IZENEAN (TORRE DEL SOL), udal lizentzia emotea komunitate horretan balaustrada kentzeko eta aldatzeko.

268/2012.- *MANUEL DEL HOYO GARCIA jaunari udal lizentzia emotea Zarrakoa bideko 9. zenbakiko 6. eskoian dagoan (Portugane) erabilera bako lonja hobetzeko.*

269/2012.- *Eunate Abando Duo andreak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

270/2012.- *Alejandro Garay Barturen jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

271/2012.- *Ana María Goiri Asla andreak eta Faustino Villacian Zapatero jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

272/2012.- *Josu Urrutia Barturen jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

273/2012.- *Ander Uriarte Agirre jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

274/2012.- *Rafael Garay Martínez jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

275/2012.- *Abraham Ensunza Elgezabal jaunak imitako berraztertze errekurtsua ezestatzea.*

276/2012.- *Bildu udal taldeak imitako berraztertze errekurtsua zatiz baiestea eta zatiz ezestatzea.*

Horren ostean, Alkateak dino abenduaren 17ko 261/2012 dekretua (2012-12-07ko udalbatzarrean onartutako maileguaren zatiak zeintzuk erakundekaz hitzartuko diran zehazten dau) berretsi beharra dagoala, eta agiri horren edukinaren barri zinegotzi guztiek daukien ezker, botoa emoteari ekin deustie. Horrenbestez, Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoarekin, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, 261/2012 dekretu hori berrestea erabagi dau.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaechen zinegotziek, barriz, ezezko botoa emon dabe; zergaitik eta, mailegua eskatzearen aurka talde horrek 2012-12-07ko udalbatzarrean azaldu ebazan arrazoiak dirala-eta.

5.- KREDITUAK ERABILGARRI EZ EGOTEKO ERABAGIA HARTZEA, 2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIARI JAGOKONEZ.

Lehenengo eta behin, Aitor Apraiz alkateak, Alkatetzaren proposamena irakurri dau, edukina hauxe inanik:

“Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak irailaren 5eko datagaz eta ondoren urriaren 14koagaz bialdutako informazino oharra; hona hemen, bada, berbarik berba:

“NOTA INFORMATIVA RELATIVA A LA APLICACIÓN POR LAS ENTIDADES LOCALES DE LO DISPUESTO EN LOS ARTÍCULOS 2 DEL

REAL DECRETO-LEY 20/2012, DE MEDIDAS PARA GARANTIZAR LA ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y DE FOMENTO DE LA COMPETITIVIDAD, Y 22 DE LA LEY 2/2012, DE PRESUPUESTOS GENERALES DEL ESTADO PARA EL PRESENTE EJERCICIO.

El apartado 1 del citado artículo 2 del Real Decreto-ley 20/2012, "*Paga extraordinaria del mes de diciembre de 2012 del personal del sector público*", establece la **obligación de reducir las retribuciones anuales de 2012** del personal al servicio del sector público, en el importe correspondiente a la paga extraordinaria a percibir en el mes de diciembre, en los siguientes términos:

*"**En el año 2012** el personal del sector público definido en el artículo 22. Uno de la Ley 2/2012, de 29 de junio, de Presupuestos Generales del Estado, **verá reducida sus retribuciones en las cuantías que corresponda percibir en el mes de diciembre como consecuencia de la supresión tanto de la paga extraordinaria como de la paga adicional de complemento específico o pagas adicionales equivalentes de dicho mes**".*

Adicionalmente, el artículo 22 de la Ley 2/2012, de Presupuestos Generales del Estado para 2012, establece en su apartado Dos, que:

*"**En el año 2012, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar ningún incremento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2011, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo**".*

Estas normas tienen carácter básico, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 149.1.13ª y 156 de la Constitución.

La aplicación de lo dispuesto en las mismas, obliga a las Entidades locales, al igual que al resto del sector público, a cumplir con una triple obligación en relación a las retribuciones a percibir, en el presente año 2012, por el personal a su servicio:) Supresión de la paga extraordinaria, y de las pagas adicionales de complemento de destino o equivalentes, correspondientes al mes de diciembre.

2) Reducción de las retribuciones anuales previstas, en el importe correspondiente a las citadas pagas.

3) Que los importes de las retribuciones a percibir por el personal en el presente año, no superen, en ningún caso, y en términos de homogeneidad, los abonados en el año 2011, minorados en la cuantía de las pagas a suprimir.

La adopción de actos o acuerdos que supongan el incremento de cualquier concepto retributivo (productividad, incentivos al rendimiento, etc), tales como modificaciones presupuestarias aprobadas para transferir crédito desde otros capítulos del presupuesto al capítulo 1 "*gastos de personal*", que tengan como efecto el incumplimiento de las

obligaciones indicadas anteriormente, podrán ser objeto de impugnación, al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y demás normativa aplicable, por tratarse de actos dictados con infracción del ordenamiento jurídico vigente.

Según el Apartado 4 del citado artículo 2 del Real Decreto-ley 20/2012, *"las cantidades derivadas de la supresión de la paga extraordinaria y de las pagas adicionales de complemento específico o pagas adicionales equivalentes de acuerdo con lo dispuesto en este artículo se destinarán en ejercicios **futuros a realizar aportaciones a planes de pensiones** o contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación, con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en los términos y con el alcance que se determine en las correspondientes leyes de presupuestos"*.

Este apartado establece la obligación de:

- 1) Inmovilizar, en el presente ejercicio, los créditos previstos para el abono de las citadas pagas.
- 2) Afectar estos créditos al fin que en el propio artículo se cita (aportaciones a planes de Pensiones o contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación), cuando se verifiquen dos requisitos: que lo permita el cumplimiento de los objetivos previstos en la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y que así se prevea en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado. sin que puedan destinarse a ningún otro objeto, ni en el presente ejercicio, ni en ejercicios futuros.

A fin de declarar como no disponibles estos créditos, cuya inmovilización y destino ha establecido la Ley, las Entidades locales deberían dictar, por el importe correspondiente, Acuerdo de no disponibilidad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 33 del Real Decreto 500/1990, de 20 de abril, según el cual:

1. *"La no disponibilidad de crédito se deriva del acto mediante el cual se inmoviliza la totalidad o parte del saldo de crédito de una partida presupuestaria, declarándolo como no susceptible de utilización."*
2. *La declaración de no disponibilidad no supondrá la anulación del crédito, pero con cargo al saldo declarado no disponible no podrán acordarse autorizaciones de gastos ni transferencias y su importe no podrá ser incorporado al presupuesto del ejercicio siguiente."*
3. *Corresponderá la declaración de no disponibilidad de créditos, así como su reposición a disponible, al pleno de la entidad."*

Hori dala eta, gorago aitaturako neurriek beren-beregi dakarre Gabonetako aparteko

ordainsaria ezabatu beharra aurtengo ekitaldian; horretarako, UDALBATZAK 66.542,55 euroko kredituak erabilgarri ez egoteko erabagia hartu beharra dauka beharrezko aurrekontu aplikazioetan, bai eta kopuru horreek 20/2012 Errege Dekretu-legearen 2. artikulua 4. idatz-zatian ezarritako helburuetarako ezartzea be”.

Jarraian, idazkariak hauxe azaldu dau: beharginei ordaintzeko gordeta dagoan abenduko aparteko lansaria ordaintzea horretarako ez erabiltzeko erabagia udalbatzak hartu behar daua, 500/1990 errege-dekretuan horrela ageri dalako.

Felix Jauregizar zinegotziak dino gauza bat dala Espainiako Gobernuak udalbatzak daukazan eskumenak zeintzuk diran gogorazotea eta udal erabagiak aztertzea, eta, beste bat, udalbatza erabagi zehatz bat hartzea behartzea, eta, beraz, azken hau eskatzeko, euren ustez, Gobernuak ez daukala eskumenik.

Idazkariak dinotso alkateak irakurritako idatzia Espainiako Gobernuak bialdutakoa dala, eta agiri horretan erabagia udalbatzak hartu ondoren horren egiaztagiria berari bialdu beharraz azaltzen dala.

Alberto Bilbao zinegotziak dino Espainiako Gobernuaren idatzian hauxe adierazoten dala: udaleko beharginen 2012ko lansariak ezin dabela izan 2011koak baino handiagoak, baina, beraz, berdinak bai. Zinegotzi horrek dino, Bakioko kasuan, ez dala beteten, ze 2012ko ekitaldian indarrean 2011ko udal aurrekontuaren luzapena dagoan ezkerre, aurtengo abenduko lansaria ezabatu ostean, beharginek 2012an 2011n baino diru soldata murriztago kobrauko dabe.

Horreri buruz Alberto Bilbaok eta Aitor Apraizek (gobernuaren atal hori irakurri dau) eztabaida izan dabe.

Felix Jauregizar zinegotziak dino danok gagozala Espainiako Gobernuaren aginduaren aurka. Baina erakunde guztiok, hau da, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta udalak, gauza izango bagina erabagi mankomuna hartu eta horrerri aurre egiteko ziur asko Gobernuaren jarrera aldarazoko litzatekela, baina, zoritxarrez, erakunde bakotxak berari ondo deritxon bideari ekiten deustola.

Zinegotzi horrek dino be, Espainiako gobernuaren aginduak udalei beren-beregi jagoken eskumena urratzen daua, udalei erabagia hartzea behartuz; hau da, udalei euren kabuz eta askatasun osoz jagoken eskumen zehatz bateri buruz erabagia hartzea eragotziz.

Alkateak bozkatzea agindu dauan ezkerre, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

1.- Alkatetzaren erabagi proposamena onestea, eta, ondorioz, aitatutako ordainsariak ordaintzeko aurreikusitako kredituak immobilizatzea eta

kreditu horreek legeak ezarritako pentsino helburuetara lotzea, beti be 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua ezarritakoagaz bat etorriz.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jaureguizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziak, barriz, erabagi hori hartzearen aurkako botoa emon dabe.

6.- BAKIOKO TXAKOLINGUNEAREN INTERPRETAZINO ZENTROAREN BURUTZAPENA DALA ETA, KONTRATUAREN ESLEIPENA ERABAGITEA.

Zinegotziak, daborduko, espediente horren nondik-norakoaren jakitun diran ezkerro, Aitor Apraiz alkateak, beste barik, erabagi proposamena irakurtzeari ekin deutso.

Felix Jauregizar zinegotziak adierazo dau espediente horren inguruan Bildu/Bakio taldearen eritxia eta proposamena aurreko bileretan argi geratu dala, eta, beraz, ez daukiela 2012-11-29ko udalbatzan adierazotakoa berroneste bano besterik.

Horrela bada, honako hau guztia hartu behar da kontuan: *udalbatzak 2012ko garagarrilaren 26an egindako osoko bilkuran Bakioko Txakolingunearen interpretazino zentroaren proiektu museologiko eta museografiko egin eta burutzeko prozedura idegi bitartez, ekonomia aldetik eskaintzarik abantailatsuenaren bidez eta adjudikazino erespide jakin batzuen arabera kontratatzeiko klausula tekniko eta administratiboen ageria onetsi zan; era berean, haren adjudikazinoak dakarren gastua be baimendu zan.*

Halanda ze, lizitazino iragarkiak Europar Batasuneko Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean, udal oholtzan eta kontratugilearen profilean argitaratu ziran legez ezarritako epean, interesdunek bidezko proposamenak aurkeztu eiezan.

Ostean, lizitazino barruan espedientean dagozan proposamenak aurkeztu ziran.

Bakioko Udalbatzak, 2012ko zemendiaren 29an, erabagi eban eskaintza ekonomikorik abantailatsuen "Baleuko, S.L., Playmedia Motion Graphics, S.L. eta Telesonic S.A." aldi baterako enpresen alkarteak aurkeztutakoa izan zala. Halantxe baieztatu eban kontratazino mahaiak aurrera eroan eta espedientean agertzen dan aukeraketa prozesuan oinarrituz egindako proposamena; izan be, proposamen hori honakoak kontuan hartuz egin da: zereginen arabera lan taldearen, proposamenaren egokitasuna eta balio arkitektoniko eta artistikoa kontuan ageri diran balorazino txostena (kontratugilearen profilean agertzen dana), txosten hori C gutun-azalean agertzen zan balioespenen bitartez neurtu beharreko dokumentazinoari buruz izanik, eta proposamen ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikatzen zan dokumentazinoa, B gutun-azalean azaltzen zana, hau be kontratugilearen profilean agertzen da.

Enpresa horrerri agiri honeek aurkeztea eskatu jakola: Gizarte Segurantzari eta zergenganako betebeharrei buruzko ziurtagiriak, zorrik ez daukala egiaztatzeko, bai eta, behin betiko bermea be.

UTE “Baleuko, S.L., Playmedia Motion Graphics, S.L. y Telesonic S.A.” aldi baterako enpresa alkarteak, 18.750 euroko behin betiko bermea aurkeztu dau, bai eta, eskatu jakozan ziurtagiriak be, guztiak epe barruan.

Hori guztiori dala-eta espedientea aztertu ostean, eta Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

“Baleuko, S.L., Playmedia Motion Graphics, S.L. eta Telesonic S.A.” aldi baterako enpresen alkarteari Bakioko Txakolingunearen interpretazio zentroaren proiektu museologiko eta museografikoa egin eta burutzeko kontratua adjudikatzea, 375.000,00 euroko prezioaren, gehi BEZaren truke, beti be baldintza berezien agirian eta preskripzino teknikoen agirian jasoten diran gainontzeko baldintzen pean, bai eta kontratistaren proposamenean ageri diran zehaztasunen arabera be.

2012ko ekitaldirako luzatutako 2011ko udal aurrekontuaren gastuen ataleko 432 622 00 06 partidaren pentzura gastua egitea.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jaureguizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziak, barriz, erabagi hori hartzearen aurkako botoa emon dabe.

7.- SUKIBIDE S.L. ENPRESEAK AURKEZTUTAKO UKO-DOKUMENTUAREN BARRI EMOTEA, BETI BE ERRENTERIAKO SUR.3 EREMUKO ZRC 13 LURSAILAREN TITULARTASUN KOPURUARI JAGOKONEZ, BAKIOKO UDALAREN ALDE.

Aitor Apraiz alkate, Sukibide enpresek aurkeztutako 2012ko zemendiaren 30eko eskutitza irakurri dau eta udalbatza horren jakinaren ganean geratu da.

8.- ERRENTERIA SR-3 EREMUKO BIRPARTZELAZINO PROIEKTUKO Z.R.C. 13 EMOITZAZKO LURSAILA, LEHIAKETAREN BIDEZ, INORENGANATZEKO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN KLAUSULEN AGIRIA ONESTEA.

Agiri horren kopia zinegotzi guztiek daukien ezkerro, bere edukia dala-eta eztabaidatzeari ekin deutse.

Hortaz, Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu/Bakio taldearen izenean, dino ekonomiko-administratiboen klausulen agiria aztertu dabela eta bertan hutsuneak edota zuzendu beharreko akats honeek dagozala:

Agiria horren egileak sinatuta egon behar da.

Agiriaren hirugarren xedapenean azaltzen da adjudikatzailerak eraikitze eta urbanizazio obrak aldi berean egin ahal izango dauala. Bada, horretarako ezkatzen doguna da horrek fidantza ixtea urbanizazio obran burutzapena bermatzeko.

XX. klausulan jarten dan ebazpen baldintzagaz ez gagoz ados, ze horrek ahalbideratzen dau adjudikatzailerak lursailaren prezioaren zatiren bat ordaindu ezean, zati horrerik jagokon lursailaren jaubetza udalaren esku geratzea. Gure ustez, lehiaketaren helburua lursaila saltzea bada, horren ondoren udala oraindik lursailaren zatiren baten jaubea izatea ez da logikoa; aurkeztuko diran lizitatzailerak lursaila osoa erosteko gaitasun ekonomikoa izango dabela uste dalako.

Adjudikatzaileraren proposamenak aztertzeko erabili behar diran erispideei jagokenez hauxe: proposamen teknikoa gehieneko 40 puntu emonaz saritzen da, eta puntu horreek proposamen hori osotzen daben sei atalen artean banatzen dira. Gure ustez, atal batzuk beste batzuk baino garrantzitsuago dira eta beraz puntu handiagoa izan beharko leukie.

Agirian azaltzen da kontratazino mahaiak proposamenak aztertzeko txostenak eskatu ahal dauzala. Gure ustez, agirian jaso behar da txostenak derrigorrez eskatu behar dauzala, eta, ganera, txostena egiten dauan teknikoak mahaiaren parte hartu beharko leuke, azalpenak emon eta sortu daitekezan zalantzei erantzuteko.

Hori guztiori dala-eta zinegotzi horrek dino alegazioak ipiniko dabezala

Azkenik, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazino zinegotzien legeko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltzako, erabagi hau hartu dau:

LEHENENGOA. Bakioko arau subsidiarioetako Errenteria SR-3 egoitzako eremu urbanizagarriko birpartzelazino proiektuko Z.R.C. 13 emoitazko lursaila, lehiaketaren bidez, inorenganatzeta onestea. Izan be, ondasun higiezin horrek ondare-ondasun izaera juridikoa dauka eta bere deskribapena hauxe da:

Bakioko lursail eraikigarria, udal mugarte horretako SR-3 Errenteriako egoitzako eremuaren barrukoa, mendebalderantz kokatua modu errektangeluarrean, guztira 3.258,17

m2ko azalera daukana; haren erabilerak honakoak izango dira: babes publikoko araubide motaren bat eta merkataritza araubidea. Lursailaren mugak honakoak: mendebaldean eta iparraldean herri jabari eta erabilerako eremu libreterako erabiliko dan lagapen lursaila; Hego-mendebaldean herri jabari eta erabilerako eremu libreterako erabiliko dan lagapen lursail berbera; Hego-ekialdean oinezkoentzat gordetako lursaila; eta Ekialdean oinezkoentzat gordetako lursail berbera.

BIGARRENA. Espedientean jasoten dan moduan, Errenteria SR-3 eremuko birpartzelazino proiektuko Z.R.C. 13 emoitazko lursaila, lehiaketaren bidez, inorenganatzeko ekonomiko-administratiboen klausulen agiria onestea.

HIRUGARRENA. udal oholtzan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Kontratugilearen Profilean lizitazino iragarkiak ipintea, egutegiko 15 egun barruan interesatuek eskaintzak aurkezteko.

LAUGARRENA: Z.R.C. 13 lursailaren balorazinoaren zenbatekoa 2012ko ekitaldian indarrean dagoan udal aurrekontuko diru sarreraren %25a baino handiagoa dan ezkerre, lursaila inorenganatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena eskatzea, beti be Toki Erakundearen Ondasunen Arautegiaren 109. artikuluaaren arabera. Horrela bada, erabagi hau foru baimen horren pentzura geratuko da.”

BOSTGARRENA: Kontratazino Mahia era honetara osotzea erabagi dau aho batez:

— Aitor Apraiz Imatz jauna, Bakioko alkate jauna, mahaiburu lez jardungo dauena.

Bokalak:

— Juan Francisco Eiguren Cortázar jauna, udal idazkari-kontu-hartzailea.

— Xabier López Querejeta, Bakioko udaleko aparejadorea.

— Iker Muruaga Goikoetxea, titular; eta Gorka Renteria Garay jauna, ordezko; biak korporazino honetako zinegotziak.

— Felix Fauregizar Oraindi, tirular; eta Miren Luke Verdes Cearra,

ordezko; biak korporazino honetako zinegotziak.

Idazkaria:

Itxaso Urazurrutia Bilbao andrea, Bakioko Udaleko funtzionarioa.

BILDU/BAKIO taldeko Feliciano Jaureguizar, Miren Luke Verdes, Amets Jauregizar eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek aurkako botoa emon dabe.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikulua araberaren arabera).

Zabor bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasa arautzen dauan ordenantzearen eta ondasun higiezinaren ganeko zergaren ordenantzearen eranskinaren aldarazpenak dirala eta, Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen izenean, hauxe adierazo dau: *aldarazpen horreei buruzko erabagia hartzea premiazkoa da, zergaitik eta, bai 2012-11-08ko udalbatzan eta bai eta 2012-12-07koan be esan zan modura, udal zerbitzuei aurre egiteko, lehenbailehen diru sarrera arrunt gehiago bilatzea ezinbestekoa bihurtu da. Hori dala eta, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera tasa eta zerga horreen ordenantzak indarrean sartzea premiazkoa dala deritxogu.*

Jarraian, Udalaren Osoko Bilkurak aitaturako tasaren eta zergaren ordenantzen aldarazpenei buruzko erabagiak hartzea premiazkoa dala onartu dau, EAJ/PNV taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoarena.

BILDU/BAKIO taldeko Feliciano Jaureguizar, Miren Luke Verdes, Amets Jauregizar eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, gaiok ez dirala premiazkoa-eta horreei buruzko erabagiak hartzearen aurka bozkatu dabe. Izan be, adierazo dabe ezin dala azkeneko ordura arte egon udal gaiak onartzeko, horretarako urte osoa egon danean.

Hortaz, Aitor Apraiz alkateak hauxe adierazo dau: zabor bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasa arautzen dauan ordenantzearen eta ondasun higiezinaren ganeko zergearen ordenantzearen eranskinaren aldarazpenak, 2012-11-08ko udalbatzarrak behin-behinean onartu ostean, herriko taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkien bidez, informazio publikoan ipini ziran eta, ondorioz, alegazio idazkiak aurkeztu diran ezkerok, bai alegazinoei buruz, bai eta zergearen eta tasearen aldarazpenak behin betiko onartzeari buruz be, ondorengo 2012-12-26ko proposamena idatzi dau (zinegotziek badaukie agiri horren kopia)

Felix Jauregizar zinegotziak dino alkatetzaren proposamena bakarrik alkateak sinatu dauala eta, ia nork egin behar dauan alegazinoei buruzko txostena, ze, esaterako, idatzi horretan arautegiaren ganeko azalpenak ageri dira-eta.

Idazkariak dino berak egindako alegazinoei buruzko txostena espedientean dagoala, baina, euron edukia alkateak bere erabagi proposamenean jaso dauala, gai zerrendatik kanpo, udalbatzan aurkezteko, eta azken honeri jagokola onartu edo atzera botatea.

Bildu/Bakiok kexea azaldu dau egin dan moduagaitik eta idazkariaren txostena ez jasoteagaitik.

Jarraian, alkateak bere proposamena irakurtzeari ekin deutso, edukia hauxe izanik:

“ONDASUN HIGIEZINEN GANEKO ZERGA

M^a Teresa Iturriaga Zuloagak (sarrera erregistroa 2087/2012), galderak egiten dauz: ea zertarako erabiliko diran zerga igoeraren ondorioz sortuko diran diru sarrerak, ea legezkoa dan zergea %18 igotea, ea zelan emongo jaken herritarrei horren barri, ea zertarako erabiliko diran igoerea dala-eta jasoko diran diru sarrerak eta abar.

Josefa Andoni Madariagak (sarrera erregistroa 2086) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Anselmi Garay Markaidak (sarrera erregistroa 2084) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Maria Isabel Goitia Aristegik (sarrera erregistroa 2083) Bakioko Udala pairatzen dagoan egoera ekonomiko larritik urteteko hartutako erabagiak kritikatzten dauz lau lerroren bidez. Kritika horreek alegazino zantzua barik kexa zantzua daukie.

Deune Renteria Imatzek (sarrera erregistroa 2082) ondasun higiezin ganeko zergak eta zaborrak batzeko zerbitzua emoteagaitiko tasea %18 eta %33 igotea kritikatzten dau, adierazoz igoera hori pentsino xumea jasoten daben pertsonentzat zama eutsiezina dala, eta, beraz, egoera horretan dagozan jendeak tasak edo zergak ordaintzetik salbuetsita egon beharko litzatekezela. Horrez ganera, zaborren inguruko kexak azaltzen dauz.

Laura Uriarte Bilbaok (sarrera erregistroa 2070) dino ez ulertzekoa dala zergea eta tasearen zenbatekoak igotea egoera honen aurrean: zaborrak batzeko zerbitzua murriztu egin dira, bai eta zaborrontzien kopurua be, ganera azken honen mantenimendua penagarria da. Horrela bada, zerbitzu eza, alde batetik, eta ordainaren igoerea, bestetik, ez doaz bat. Beraz, arrazoia dirua batzea bada, diru hori zertarako erabiliko dan jakin gura da.

Mirian Picos Escuderok (sarrera erregistroa 2052) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Esther Uriarte Barturenec (sarrera erregistroa 2061) dino ez ulertzeko dala zerbitzu guztiak (kirola, kale garbiketa eta lorategien mantenimendua) murriztu diranean, ondasunen higiezin ganeko zergea eta zaborren batuketa zerbitzuagaitiko tasea igotea.

Bildu/Bakiok hauxe dino:

“Ez da justifikagarria karga-tasaren igoerea egitea Udalaren egoera ekonomiko larriari aurre egiteko, egoera ekonomikoa udal gobernuaren txarraren ondorioa dalako, eta, beraz, ondorio horreek herritarrek ordaindu beharrik ez daukielako.

Zergak herritarren beharrianak ordaintzeko erabili behar diran arren, Bakion alderantziz gertatzen da, hau da, zergak igoten dira zerbitzuak murriztu arren.

Ondasun higiezinaren katastroa balorazioak 40 urtez berrikusi ez badira, urtero-urtero herritarrek %2 gehiago ordaintzen dabe, eta, ganera, 2013an balorazioak aldatzea aurreikusita dago. Beraz, aldaketa hori egin arte udalak ez leuke zergearen igoerari buruzko erabagirik hartu behar.

Herritarrek ordaintzea gura dan karga-tasea (uri ondasunen katastroa dala-eta %1,41) gehiegizkoa da Bizkaiko herrietan bataz besteko karga-tasea kontuan hartu ezker.

Karga-tasa igo aurretik egin behar dana da ziurtatu ea herritar guztiek zergea ordaintzen daben. Izan be, azken urteotan eraikin asko egin dirala-eta, batzuk zergea ez dabe ordaindu. Horrenbestez, igoerea onartua aurretik, egoera hori aztertu eta neurriak hartu behar dira.

Talde horrek proposamena: zergearen karga-tasaren igoerea ez onartzea eta zergea ordaintzeko laguntzak onartzea”.

ETXEKO ZABORREN BATUKETA ZERBITZUAGAITIKO TASA

Josefa Andoni Madariagak (sarrera erregistroa 2086) galderak egin dauz, esaterako ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta ea zertarako erabiliko diran igoerea dala-eta jasoko diran diru sarrerak.

Josefa Andoni Madariagak (sarrera erregistroa 2086) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Anselmi Garay Markaidak (sarrera erregistroa 2087) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Deune Renteria Imatzek (sarrera erregistroa 2082) ondasun higiezinaren ganeko zergak eta zaborrak batzeko zerbitzuagaitiko tasea %18 eta %33 igotea kritikatzin dau, adierazoz igoera hori pentsino xumea jasoten daben pertsonentzat zama eutsiezina dala, eta, beraz, egoera horretan dagozan jendeak tasak edo zergak ordaintzetik salbuetsita egon beharko litzatekezela. Horrez ganera, zaborren inguruko kexak azaltzen dauz.

Laura Uriarte Bilbaok (sarrera erregistroa 2070) dino ez ulertzekoa dala zergea eta tasearen zenbatekoak igotea egoera honen aurrean: zaborrak batzeko zerbitzua murriztu egin dira, bai eta zaborrontzien kopurua be, ganera azken honen mantenimendua penagarria da. Horrela bada, zerbitzu eza, alde batetik, eta ordainaren igoerea, bestetik, ez doaz bat. Beraz, arrazoia dirua batzea bada, diru hori zertarako erabiliko dan jakin gura da.

Maite Vélez de Mendizabal Picosek (sarrera erregistroa 2053) udal gobernuak zaborren batuketa zerbitzuagaitiko tasea igoteko emondako arrazoia kritikatzin dau. Izan be, udal gobernuak adierazo dau zerbitzu horrek sortzen dauzan gastuei aurre egiteko tasea igo beharra dagoala, baina harek dino 2009an zerbitzua murriztu bazan, izango zan halanda be zerbitzuak funtzionau ahal izango ebalako, baina murrizketak egin arren gastuei aurre ezin egiteak udal gobernuaren kudeaketa txarrari leporatu behar jako, eta ez herritarrei. Ganera, oposizinoak zinegotzietatik hainbat bider salatu dabe zerbitzu horrerik jagon atal hau: lurpeko zaborrontzien

beharrizan eza eta eurok ipini eta berehala izan ebezan matxuren edo mantenimenduaren inguruko fakturak.

Mirian Picos Escudero (sarrera erregistroa 2052) galderak egin dauz, esaterako, ea zergea igotearen arrazoia zein dan eta igoerearen helburua diru-bilketa bada, jasoko diran diru sarrerak ea zertarako erabiliko diran.

Esther Uriarte Barturen (sarrera erregistroa 2061) dino ez ulertzeko dala zerbitzu guztiak (kirola, kale garbiketa eta lorategien mantenimendua) murriztu diranean, ondasunen higiezin ganeko zergea eta zaborren batuketa zerbitzuagaitiko tasea igotea.

María Josefa Jauregizar Oraindik (sarrera erregistroa 2060) udal gobernuak zaborren batuketa zerbitzuagaitiko tasea igoteko emondako arrazoia kritikatzan dau. Izan be, udal gobernuak adierazo dau zerbitzu horrek sortzen dauzan gastuei aurre egiteko tasea igo beharra dagoala, baina harek dino 2009an zerbitzua murriztu bazan, izango zan halanda be zerbitzuak funtzionau ahal izango ebalako, baina murrizketak egin arren gastuei aurre ezin egiteak udal gobernuaren kudeaketa txarrari leporatu behar jako, eta ez herritarrei. Ganera, oposizino zinegotziek hainbat bider salatu dabe zerbitzu horrerri jagokon atal hau: lurpeko zaborrontzien beharrizan eza eta eurok ipini eta berehala izan ebezan matxuren edo mantenimenduaren inguruko fakturak.

Ines Barayazarrak (sarrera erregistroa 2062) hauxe adierazoten dau: bere egunean zaborrak batzeko tresneriari jagokonez alferrikako gastuak egitea; hau da, esaterako, herrian lurpeko hainbat zaborrontzi ipini ziran, baina ez dabe funtzionatzen, eta, ganera, ipini be oposizino zinegotzien eritxien aurka egin ziran. Horrez ganera, hareen alboetan lur ganeko zaborrontziak dagoz, baina eurok be mantenimenduaren aldetik itxura kaskarrean. Horrek argi erakustera emoten dau udal gobernuaren, EAJren, kudeaketa txarra, eta ekintza horreek sortu dauzan gastuei aurre egiteko indarrean dagoan tasa nahikoa ez dala-eta horren igoera onartu gura da. Beraz, taseak zerbitzua ordaindu behar dau baina ez gestino txarrak ekarri dauan zorraren arintzea. Hori dala-eta tasaren igoerea bertan behar geratzeko eskatzen dau, eta taseak zerbitzuaren ordaina bakarrik kobratu daiala.

BILDU/BAKIOk taldeak alegazino idazkiaren bidez ondorengo adierazo dau:

“Udal gobernuak tasea igoteko emondako arrazoia ez ulertzekoa dala; izan be, argudiatzen dau tasea dala-eta herritarrek, gaur egun, ordaintzen daben diru kopurua zabor bilketa zerbitzuaren gastuak nahikoa ez izana.

Talde horrek, beraz, galdetzen dau tasea 2009. urtean moldatu bazan gastuei aurre egiteko helburuagaz, ea zelan dan posible murrizketak eginda be, batutako dirua zerbitzua ordaintzeko nahikoa ez izatea. Eta, hori horrela izana udal gobernuaren kudeaketa txarragaitik dala.

Horrezaz gain, zerbitzuari buruz egindako kostuei eta diru sarrerei buruzko Koadroaren edukiaren benetakotasuna be zalantzan jarten dau, horretarako atal honeek aitatu:

“Lurpeko zaborrontzi gehienak behin eta berriz apurtzen diran ezker, ez dagoz erabilgarri, udalak ezin deusolako euren mantenimenduari aurre egin, baina koadroan zerbitzu horrek izango dauan kostua ageri da.

Material batzuen amortizazioa gehitzen da, baina zelan kalkulatu dira? Non dago inbentarioa? Non dago amortizazioen plana.

Aitatzen da brigadako behargin bi zaborraren bilketa egiten arituko dirala, eta horregaitik lan soldata urtean %3 igoko jakela. Baina atal hau ez da justifikatzen”.

Horrenbestez, talde horrek, hauxe proposatzen dau: zaborrak biltzeagaitik udalak ematen dauan zerbitzua %33a igo beharrean, KPI igo dan kopurua igotea”.

ERANTZUNA:

Kontuan hartu beharra dago ia alegazino eta erreklamazino guztiek eskatzen dabela sastar tasea %33 eta ondasun higiezin zergea %15 ez igoteko; izan be, erreklamazinogileen eretxiz, sastar zerbitzuak eta kultur jarduerak murriztu dira eta kiroldegi zerbitzua kendu. Era berean, bestelako alderdi eta eskakizun batzuk be jasoten dira, esate baterako pertsona jubilatuen eta egoera ekonomiko onean ez dagozan pertsonen aldeko salbuespenak, eta, ganera, jakin gura dabe zertan erabiliko dan zerga igoera horreen dirua.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoagaz bat etorritz, tokian tokiko ordenantzen onespena c) idatz-zatian zehaztutako prozedurari lotu behar jako: “erreklamazinoak eta iradokizun guztiak epe barruan ebaztea, udalbatzak azken onespena emonez”.

Aurkeztu daitekezan erreklamazinoei jagokenez, Auzitegi Gorenaren 1986ko urtarrilaren 22ko epaiak zehazten dauenez, ezin dira errekurtsotzat hartu, ez dira aurkaratze-egintzak, ezpada izapidetze-egintzak, toki zergen arloan borondate politikoa eratzeari laguntzeko birtualtasuna daukienak, ze jendaurreko informazino-aldiaren izapidearen xedea, korporazioaren erabagia zuzenago eta osoagoa izateko datuak eta balioespenak emoteko deialdia izateaz ganera, ikutuenezko aukera eta abagune bat da, euren interesen alde alegatzeko edo erreklamatzeko.

AEPAJLren 86.3 artikulua ezartzen dauen lez, interesdunen erreklamazinoak kontuan hartu behar dira eta erantzuna emon, eta hori ez da oztopoa izango funtsean antzekoak diran gaiak azaltzen dabezan alegazinoak bardintzat hartzeko eta batera ebazteko. Behin betiko onspen erabagiaren kontra, administrazinoagazko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da.

Sastar tasaren aldarazpenaren inguruan proposatutako alegazinoei jagokenez, adierazo beharra dago tasa hori ez dala 2009tik aldatua izan eta haren zenbatekoak bardina izaten jarraitu dauela gaur egunera arte. Era berean, aipatu beharra dago 2009an zerbitzua ez zala erdira jaitsi; ganera, tasa ez da KPIren arabera gehitu, gorago aitatu lez, sastarren zenbatekoa bardina izan da-eta 2009tik 2012ra bitartean.

Ondasunen inbentarioaren ganean aitzat hartu behar da urigintza saileko teknikariek egindako edukiontzi-zerrenda.

Materialak amortizatze plangintzari jagokenez, txosten tekniko-ekonomikoak ezartzen dauenez, amortizazioa lineala da hamar urteko epeari begira eta, gero, lau urteko amortizazio lineala dago, ordezko eta erosketa barriagoetarako, beti be horreen justifikazino egin bada bai urigintza saileko txostenetan bai kontabilitateko saileko fakturretan.

Pertsonalaren ganean, behargin biren premia zehazten da; beharginon soldata %3 igo behar da, ze, kontratatutako zerbitzua murriztean, hori udalaren pertsonalagaz osotu behar da edukiontziak garbitzeko eta abar; gauzak horrela, uste da horreen soldata %3 igoko dala, beti be Betean enpresak 2012ko bagilean egindako auditoritzaren txostenaren aurreikuspenetan oinarrituz.

Azkenik, komenigarria da adierazotea tasa aldarazoteko Udalbatzaren onespeneren aurretiko Ogasun Batzordean aitatu zala sastarraren zenbatekoa inguruko beste udalerrri batzuen bano txikiagoa zala eta horri gaurkotzea komenigarria izango zala.

Toki Ogasunei buruzko Legeak honakoa ezartzen dau:

“25. artikulua: zerbitzu bat emoteagaitiko edo jarduera bat egiteagaitiko tasen zenbatekoak ezin izango dau oro har zerbitzu edo jarduera horren benetako kostu aurreikusia gainditu edo, halangorik ezean, jasotako prestazinoaren balioa. Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko eta zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, horreen barruan finantza arlokoak, ibilgutuen amortizazioa eta, hala bajagoko, tasa eskatzeko prestazinoagaitiko zerbitzuari edo jarduerari eutsiko jakola bermatzeko beharrezkoak diranak.

26. artikulua: zerbitzuak finantzatzeko tasen ezarpenerako erabagiak txosten tekniko eta ekonomikoetan oinarrituz hartuko dira; txosten horreetan azaldu beharko da zein dan espedienteko txosten tekniko-ekonomikoaren gaia diran zerbitzuen kostuaren balizko estaldura.

OHZren kargaren kuotaren zergaren aldarazpenari jagokonez, aitatu beharra dago, Ondasun Higieziinei buruzko bagilaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren 18. artikulua honako hau ezartzen dauela: udalek bertan zehaztutako karga tasak igo ahal izango dabez 100eko 3ko mugaraino uri ondasunen kasuan eta 100eko 1,5eko mugaraino landa ondasunen kasuan; halanda ze, zerga horren gehikuntza artikulua horretan jasotako parametroen barruan dago.

Bestetik aitatu da zerga KPIren eguneratzeagaz gehituz joan dala, beti be Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioagazko Auzietarako Salaren 1998/07/20eko epaiak, Kantabriako Justizia Auzitegiaren 2003/03/7ko epaiak eta Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2003/01/29ko epaiak ezarritakoaren arabera; edozelan be, hori ez da funtsezko aldarazpen bat, zerga presinoari balio iraunkor baten bidez eusten jakolako, beste barik.

BILDU udal taldeak idazkariaren txostenaren inguruan (OHZren karga gehitzea bidezkoa izan daitekela adierazoten dauena) egindako aitameneri jagokonez, honakoa adierazo beharra dago: udalaren egoera ekonomikoari aurre egiteko, gastuei jagokonez murrizketak egin dira, baina halanda be neurriok ez dira nahikoak eta, beraz, legearen arabera beharrezkoak diran zerbitzuak ordaintzeko diru sarrera arruntak bilatzea ezinbestekoa bihurtu da (herriko zerbitzu batzuk ezin dira legez tasaren bidez finantzatu, lorezaintza eta kale garbitasuna, esterako), eta ondasun higieziin zerga diru sarrera arruntan artean dago. Izan be, zergak, tasez bestaldera, udalen finantza beharrianei eusten laguntzeko tributuak dira.

BILDU udal taldeak alegazioen barruan 2013ko katastroaren berriak ganean egindako aitameneri jagokonez, adierazo beharra dago udalak ez daukala gai horren inguruko jakinarazpen ofizialik; beraz, horrek ezin dau justifikatu karga tasa horren aldarazpena ez egitea.

OHZ ordaintzen ez daben etxebizitzak dagozala esaten danean, Bizkaiko Foru Aldundia danez zerga horren kudeaketaz arduratzen dana, esan behar da kudeaketa lan horretan konfiantza osoa daukagula eta, halako zergarik ez daukien etxebizitzak egon ezker, gure ustetan arrazoi justifikatuak egongo dira eta ez hutsune administratiboak edo fede txarra.

Salbuespenak edo hobariak aplikatzeko alegazinoaz honakoa adierazo beharra dago:

OHZri jagokonez, Ondasun Higiezinaren ganeko Zergari buruzko bagilaren 30eko 9/1989 Foru Arauak ezartzen dauen lez, bai salbuespenak bai hobariak 5. eta 9. artikuluetan araututa dagoz hurrenez hurren. Gure ordenantzak be jasoten dauz, familia ugariaren hobaria izan ezik. Horrenbestez, bai batzuk bai besteak arauan tasatuta agertzen dira eta ordenantzek ezin dabe bestelakorik ezarri, OHZn baliabide gitxiago daukiezan familiei onura ekarriko deusien hobariak sortzeko legezko ezintasuna dagoalako.

Sastar tasari jagokonez:

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua 4. idatz-zatiak ezartzen dau: “toki erakundeek tasak ezarri ahal izango dabez toki eskumeneko edozein zerbitzu edo jarduera administratibo egiteagaitik”; eta s) idatz zatian honakoa ezartzen dau “uri hondakin solidoak bildu, tratatu eta ezabatzea, putzu baltzak eta kale partikularrak garbitzea”.

Eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 7. artikulua d) idatz-zatiak ezartzen dau honako honeek FORU ARAU BIDEZ aratuko dirala: “) Salbuespenen, txikipenen, hobarien, kenkarien eta ganerako zerga-onura eta zergapizgarrien ezarpena, aldaketa, ezabatzea eta luzamendua”.

Hori guztiori dala eta, sastarren ganeko ordenantzek ezin dabe salbuespenik ezarri, hori foru arauak ezarri behar dauelako; izan be, ordenantzak ez dauka zerga onura bat justifikatzeko behar adinako arau mailarik, legezko erreserbaren printzipioa urratzen dalako. Gauzak horrela, baliabide gitxiago daukiezanei edota behar barik dagozanei laguntzeko neurriak beste bide batetik jorratu behar dira.

Azkenik, kontuan hartzekoa da egindako alegazinoek ez dabezala aldarazpenaren alderdi juridikoak desitxuratzen; izan be, alegazinoak ordenantzak aldatzeko proposamenen ganekoak dira, baina beti be tarifak ez handitzeari begira edo salbuespen edo hobariak sartzeri begira edo txosten bat beharrezko egiten ez daben eretxi politikoei begira; horrenbestez, ordenantzak Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 2/2005 Foru Arauaren 15 eta 16. artikuluek ezarritakoagaz bat etorri aldatu dirala kontuan hartuta, alegazino horreek ezesteko proposamena ondorioztatu beharra dago eta behin betiko onetsi bai ondasun higiezinaren ganeko zergaren aldarazpena bai etxeko zabor bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasaren aldarazpena be”.

Horren ostean, Felix Jauregizarrek dino alegazinoetan azaldutako guztiari ez jakola erantzun, esaterako, alkatetzaren idatzian ageri da tasen eta zergen herriko ordenantza arautzaileetan ezin dala legean ez dagoan hobaririk edota salbuespenik ipini, baina, BILDU/BAKIOk bere alegazinoetan hori ez dino, baliabide ekonomikoak daukiezan familientzako laguntzak bideratzea baino, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen arabera,

Alkateak dinotso alegazino-gileek aurkeztutako idatziak aztertu ostean, alegazino zentzuzko atalei erantzun jakela, baina atal asko kexak edota proposamenak baino ez dirala.

Felix Jauregizarrek dino be, herriko lan taldeko behargin bi zabor-bilketa zerbitzuan aritzeagaitik soldatearen %3ko igoera justifikatzeko “Betean” enpresek egindako auditoriako txostena erabilten bada be, enpresa horren beste aholku hau ez dala kontuan hartu, ordea: zabor bilketa zerbitzu emoteagaitiko tasea %3a igotea, udal gobernua tasea %33a igotea proposatzen dau-eta.

Miren Luke Verdes zinegotziak galdetu dau ia zergaitik emon jaken erantzuna mankomuna alegazino-idazki guztiei.

Elsa María Imatz zinegotziak erantzun deutso esanez legez bidezkoa dala funtsean alegazino berdinak diranei erantzun bateratua emotea.

Miren Luke Verdesek kexea azaldu dau esanez BILDU/BAKIOk aurkeztu dauzan alegazino batzuk ez daukiela gainontzeko alegazino-gileek aurkeztu dabezan alegazinoekaz zer ikusirik.

Azkenik, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinozko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

Ondasun higiezinaren ganeko zergeari buruz:

1.- Espedientean jasoten diran arrazoiak dirala-eta ondorengo honek aurkeztutako alegazinoak atzera botatea: M^a Teresa Iturriaga Zuloagak, Joseba Andoni Madariagak, Anselmi Garay Markaidak, Maria Isabel Goitia Aristegik, Deune Renteria Imatzek, Laura Uriarte Bilbaok, Mirian Picos Escuderok, Esther Uriarte Barturenak eta Bakioko Udaleko Bildu/Bakio udal taldeak.

2.- Ondasun Higiezinaren ganeko zergea araupetzen dauan ordenantza fiskalaren eranskinaren aldarazpena behin betiko onartzea.

Zabor bilketa zerbitzua emoteagaitiko taseari buruz:

1.- Espedientean jasoten diran arrazoiak dirala-eta ondorengo honek aurkeztutako alegazinoak atzera botatea: Joseba Andoni Madariagak, Anselmi Garay Markaidak, Deune Renteria Imatzek, María Isabel Goitia Aristegik, Laura Uriarte Bilbaok, Maite Vélez de Mendizabal Picosek, Mirian Picos Escuderok, Esther Uriarte Barturenak, María Josefa Jauregizar Oraindik, Ines Barayazarrak eta Bakioko Udaleko Bildu/Bakio udal taldeak.

2.- Etxeko zabor-bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasea arautzen dauan ordenantzearen aldarazpena behin betiko onartzea.

BILDU/BAKIO taldeko Feliciano Jaureguizar, Miren Luke Verdes, Amets Jauregizar eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek aurkako botoa emon dabe.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Amets Jauregizar zinegotziak dino udalak bere hizkuntza eskubideak urratzen jarraitzen dauala, txostenak erdara hutsez jasoten dauzalako, eta gaurkoagaz jadanik hirugarren bider dala eskabide hori egiten dauana, —horretarako, Bakioko Udaleko euskera ordenantzaren atalak irakurri dauz—. Eta, beraz, txosten guztiek euskeraz jasoten ez dauzan artean aldarrikapen hori egiten jarraituko dauala.

Aitor Apraiz alkateak hori entzuketan harridurea azaldu dau eta galdetu deutso udalbatza honetako gaien artean erdara hutsez ia ze agiri bialdu jakon.

Ametsek dinotso Sukibide enpresek aurkeztutakoa, eta idatzia euskeratuta egon behar dala, ordenantza horren arabera.

Alkateak, orduan, erantzun deutso esanez BILDU/BAKIO taldeak be ez dauala beteten hizkuntza eskubide hori, esate baterako, horrek, gaur bertan, udalean erdara hutsez idatzi bat aurkeztu dau-eta. Eta, udal honetan egiten diran idatzi asko, gehienak ez esatearren, euskeraz idazten dirala (gaurko udalbatzan irakurritako idatziak euskeraz egon dira), baina kanpoko pertsona fisiko edo juridiko batek idatzia erdara hutsean aurkezten badau, logikoa dala udalak ez euskeratzea.

Ametsen eta Aitorren artean eztabaida izan da, eta harek adierazo deutso Arartekoana zuzenduko dala kexa azaltzeko bere hizkuntza eskubidearen defentsan.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan zein zein horretatik kanpo be gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria